

9. KOSTUEN EGITURA

Kostuen egitura nola banatu enpresaren atal garrantzitsua da, azken finean egitura egonkor bat izan behar du produktua aurrera eramateko eta diru onurak izateko.

Hasteko, ingenieroak guk kontratatuko ditugu, beraz, hau lehenengo gastua izango da. Izan ere, ingenieroa produktuaren ekoizpenaren atal garrantzitsu batez arduratuko da.

Jarraitzeko, beste kostu handi bat produktua ekoizteko beharrezkoak diren baliabideak izango dira. Radarrarentzako txipa erosi beharko dugu eta gainera azkenengo produktua sortzeko beharrezkoak diren beste piezak ere erosi beharko ditugu. Hauetaz gain, prozesu horretan jarduteko baliabide teknologikoak kontuan hartu beharko ditugu.

Gure asmoa, aurretik azaldu dugun bezala gure produktua ezagutzera emateko marketing kanpaina egitea da. Eta kostu hau gure diru sarreren arabera izango da.

Hasieran, sare sozialetan kanpaina egingo dugu diru asko inbertitu gabe, dauzkagun inguruneko kontaktuen bidez sare sozialetan ezagutzera emango dugu gure produktua. Gero, kartelak egingo ditugu eta hiriko puntu desberdinaten kokatuko ditugu. Diru sarrerak itzelak izateko kasuan telebistan edo beste plataforma batzuetan iragarkiak egiteko aukera pentsatuko genuke.

KONTZEPTUA	KOSTUA HIL/UNIT	URTEKO KOSTUA
TXIPA	20€/UNIT 3600 UNIT/HILERO 72.000€/HILERO	72.000€x12HILABETE=864.000€ URTERO

LED PANTAILA	15€/UNIT 3600 UNIT/HILERO 54.000€/HILERO	54.000€x12HILABATE=648.000€ URTERO
INGENIEROA	2000€/HILERO	2000€x12HILABETE=24.000€ URTERO
RADAR KUBRITZEKO KUTXA	5€/UNIT 3600 UNIT/HILERO 18.000€/HILERO	18.000€x12 HILERO=216.000€ URTERO
TOTALA	146000€/HILERO	1.752.000€ URTERO